

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA


Urlatik Landetara

2001.ko
MATATZA

50 zkia.

JOSE ARAN

**BASERRITARREN ETA ARTISAUEN
ESKORIATZAKO 5. FERIXIE**



EGUZKIGRAF

Aretxabaletako Industrialdea F-O-4 (Araba Ibilbidea)

Tf. 943 79 18 44 - Faxa: 943 79 29 41

E-mail: info@eguzkigraf.com

Larmanta

Lentzeria eta
umeen moda

Gastariadui, 21
Eskoriatza

Tel. 71 53 87

Gipuzkoa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA




DORLETA

Aranburuzabala, 22-bajo
Tel.: 943 71 51 20

GOLO
gazte Moda

Tel.: 943 71 45 61



DHARMA
YOGA ZENTRUA

Aranburuzabala, 24 behea
Tel.: 943 71 48 79
ESKORIATZA



LA MODE

ESTILISTAK
ILE
APAINDEGIA

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

**MIRENTXU
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:
Aitor Uribeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:
2.000 ale

LEGE GORDAILUA:
SS - 200/99

ISSN:
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



“Zergatik ipini dugu ur hesia afrikarren eta gure artean?”

Aspalditxo honetan badago gai bat, ez dut esango loa galerazten didanik, baina bai, ordea, pentsatu eragin egiten didana: mundu honetako herrialdeen arteko desoreka. Jakin badakit, urrun joan beharrik ez dudala desorekak ikusi ahal izateko. Nire herrian bertan direla. Baina gaur, ordea, Afrikaren gaia gura nuke ikutu. Afrikan literaturan, fikzioan, Afrika bizitzan, errealitatean.

Badiote batzuek Afrikaren gaia azken aldian erabiliegia dagoela literaturan. Baina, gaur eguneko komunikabieetan, ez al dugu irakurtzen, entzuten Afrikari buruzko albiste ugari? Eta gehienak, zoritxarrez, latzak eta ezin gogorragoak. Ez al da hori errealitatea? Eta bizitza, bestalde, ez al da literaturaren iturri?

Ez da oraindik denbora asko Bernardo Atxagari entzuten niola idazleak, esponja bailitzan busti behar duela gorputza bere inguruan bizi duenarekin. Hau berau egiten ari dira idazleak, euren inguruko bizitzaz gorputza busti, fikziozko errealitateak kontatzeko.

Baina errealitatea fikzioa baino gordinagoa da. El Pais egunkariko maiatzaren 27ko gehigarrian irakurtzen dut, Burkina Fasoko 14 eta 15 urteko lehengusu batzuk nola bizi diren, trafikatzailer batek engainaturik Costa de Marfil-eko kakao lan-

tzen duen baserri batera eroanda, nola bizi diren, eguzkia irteten denetik sartzen den arte lanean; bi jatordu egunean eta egunero jaki bera; ezin ezer egin eta beti amenazupean. Egunen batean bi gazte hauek telebistan hemen Europan nola bizi garen ikusiz gero, ez al dute bada jarriko euren bizitza arriskuan Europan etorteko? Heriotza hain gertu izanik, ez dute asko galtzen saiakeran baina, bestalde, dena galdu ahal dute. Bizitza bera.

Egoera antzeratsuak Hirugarren Munduko edozein herrialdeetan ematen dira. Nola ez dira bada, Europan sartzen saiatuko. Eta, nire ustez, eskubide osoa dute. Ez al ziren, gainera, herri hauek europarrek kolonizatuak izan XIX. Mendearen bukeran eta XX. Mendearen hasieran? Etor bitez, bada.

Errealitatea eta fikzioa lotuz, gaur egungo haur-gazte literaturan etorkin askoren istorioak irakurri ahal ditugu. Eta, beharrezkoa ikusten dut gainera, istorio guzti hauek irakurriak izan daitezten, haurrek eta gazteek mundu asko daudela jabetu daitezten.

Iñaki Agiriano

Lagun arteko bazkari batekin amaitu dituzte Irakasle Eskolaren 25. urteurreko ospakizunak



Joan zen zapatuan eman zitzaion amaiera Irakasle Eskolaren 25. urteurreko ospakizunei. Eskolan jardundako 100 bat ikasle elkartu ziren. Marian Iriondo irakaslearen eta Jesus Garmendia dekanorearen hitzen ondoren, hortarako propio prestatutako

bideoa ikusteko aukera izan zuten bildutakoek. Ondoren bazkaria izan zen XVII. mendeko eraikinaren patioan. Eguraldi aparta egin zueenez, toki bikaina otordurako. Bazkalostean, oroigarriak banatu zituzten bertaratuei. Blanca Gomez de

Segurak egindako zeramikako oroigarriak banatu zituzten. Ondoren, Jon ostolaza eta Iñaki Larrañaga aritu ziren bertsotan. Egun alaia izan zen eta garai bateko ikasle eta irakasle-en arteko konplizitatea birsortzeko aukera izan zen.

Jesus Garmendia: MUNIren Humanitate Fakultateko dekanoa

“Jardunaldietan oso goi mailakao gonbidatuak izan ditugu”



Irakasle Eskolako ikasle ohien elkarrekin eman genion amaiera joan zen zapatuan eskolako ospakizunei. Orain, ekainean, diplomak banatzea bakarrik geratzen zaigu. Bestalde, antolatu ditugun jardunaldiei buruz, oro har oso balorazio ona egiten dut. Behingoz, ekonomikoki lasai samar jokatzeko aukera izan dugu. Aukera izan dugu hainbat enpresatara jo eta enpresa horiek

diru-laguntza eskaini digutelako. Hortaz, babes horrekin, gure ikusmira oso goian jarri dugu eta antolatu ditugun jardunaldietan parte hartu dutenak oso goi mailakoak izan dira. Bestalde, irakasleak ere gogoz inplikatu dira. Hori gertatzen denean, arrakasta ia ziurtatuta dago. Gainera, parte hartze eta oihartzun handia izan dute jardunaldiek. Prentsa arloan ere oso lan txukuna egin dugula uste dut.

AZKOAGA

AZKOAGA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure Zerbitzura

AZKOAGA

AZKOAGA

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki, 3/ Tel.: 71 31 29/ Eskoriatza 20540

Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia

Txikirri-txikirri III. mendi ibilaldia izango da ekainaren 10ean Eskoriatzan. Aurreko aldietan bezala, hildako mendizale eskoriatzarren oroimenezkoa izango da martxa. Irteera goizeko 07:00etatik 07:30era bitartean izango da. Izena emateko bi aukera izango dira. Bata telefonoz, honakora deituz: 943 71 46 20, maiatzaren 29an eta 31n, eta ekainaren 5ean eta 7an, 19:30etatik 21:00etara bitartean. Beste aukera, ibilaldiaren egunean bertan goizeko 06:00etatik 07:30etara bitartean.

40 kilometroko ibilaldia

Ibilaldia 40 kilometrokoa izango da, beraz, 7-9 ordukoa. Ibilaldian parte hartzeko 500 pezeta ordaindu beharko dira eta, ibilaldiaren egunean bakoitzari dagokion txartela, irteerako kontrol postuan emango zaio, kontrol postuetan erakusteko.

Ibilaldia honako toki haue-tatik pasatuko da: Eskoriatza, Apotzaga, Asensiomendi, Jarindo, Bentafria, Leixargarate, Mugarriluze (haize-errotak ikusteko parada), Degurixa, Kurzabarri eta Eskoriatza.

Antton Jaime Garraio diputatua Aingeru goardako biribila ikustera

Aingeru goardako biribilgunea zela geratu den ikustera eta Debagoienean egiten diharduten beste hainbat obraren nondik norakoak gertutik jarraitzea etorri zen gurera Antton Jaime garraio diputatua maiatzaren 18an. Biribilgunearen lanak oraintsu amaitu dituzte.



Honen kanpoko erradioak 31 metro ditu eta galtzadak 8 metroko zabalera. Biribilgunea leku horretan egin ahal izateko, 10 metroko altuera duen harribetazko horma egin behar izan dute, Arlabaneko mendatera joateko bidearen ondoan. Era berean, errekaaren ubidearen ondoan hormigoizko harribetazko bi horma egin behar izan dituzte, 3,5 metro eta 8 metro arteko altuera, eta guztira 90 metroko luzera dutenak.

Antton Jaimek azpaimarratu zuenez, Aingeru goardako bidegurutzean ibilgailu asko igarotzen den arren, ibilgailu ilararik sortu gabe egin ahal izan dituzte obrak, biribilgunea bi fasetan egin dutelako. Bestalde, oso gustura agertu zen egindako lanagatik. Eskoriatzako alkate Edorta Zubizarreta ere egon zen obrak zela geratu diren ikusten.

Aingeru goardako biribilgunea egiteko eta ingurua itxuraldatzeko lanak ia-zko urrian hasi zituzten eta aurtengo maiatzean amaitu dituzte. Obren aurrekontua 175 milioi pezetakoa izan da.

Goienako bazkide izatea onartu du Eskoriatzako udalak

Oraingo asteko udalbatzarrean Goienako bazkide izateko tramitea bete du Eskoriatzako Udalak. Eskoriatzako udalak lehendik baietza emana zion Goiena egitasmoari. Bi milioi pezetako diru partida onartuta zuen Eskoriatzan GOITB ikusi eta *Goienkaria* astero eta *Ze barri?* hilero etxez etxe doan banatzearen truke. Bi milioi horietatik, 200.000 pezetako partida Goienako bazkide izateagatik Eskoriatzako udalari tokatzen zaiona da. Goiena egitasmoari baietza eman eta komunikazio enpresako bazkide izatea onartua duten Debagoieneko sei udalek, tartean Eskoriatzakoak, joan zen martxoan sinatu zuten hitzarmena Aramaioko udalean.



Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3

tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 t'erdietara

eta 17etatik 20etara

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia, z/g

Tel.: 943 71 50 61

-TXAPA

-MARGOA

-eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Isabel Guridi

Museo Eskola sortu zenetik, jadanik hamabost urte, dago bertako arduradun Isabel. Euskal Herriko historia ezagutu eta eta hondare kulturala gordetzeko sortu zen Museo Eskola honetara heldu den azkenengo aurkikuntza, Olazar auzoan agertutako errota eta burdinola dira. Ez bakarrik Eskoriatzarentzat, bailara osoarentzat oso interesgarria den aurkikuntza Isabelen esanetan.



► Zer da aurkitu dena?

XVII. mendeko burdinola eta errota agertu dira Olazar auzoan. Oñatiako artxiboetan jasota dagoenez Galartza familiaren lehenengo ferreria izango litzateke, gero hainbat eskuetatik pasatu zena. Burdinolatik errekarra metro gutxi daudenez honen altuera aprobeztatzen zuten uraren indarrak lan egiteko.

► Ezusteko haundia izan da aurkikuntza?

Ez, izan ere Iberdrolakoek orain laupabost urte kanal bat egin zutenean burnizko hodi bat agertu zen. Beraz azkenengo lan hauek hasi zirenean kontuz ibiltzeko esan genien zerbait ager zitekeela

eta. Ni egunero pasatzen nintzen bertatik zerbait agertu ote zen galdetza, eta opor ostean pasatu nintzen batean zuloa ikusi nuen.

► Aranzadi elkarteak egon dira azterketa egiten...

Bai, hala da. Ikerketa arkeologikoa egin dute eta ubideak bi irteera dituela errekarantz eta bazter batean ate bat dagoela ikusi da. Nahi izanez gero lur gehiago kendu eta zein tamainatako atea den ikusiko litzateke, baina tentsio handiko kablea pasatzen denez bertatik hondea makina ezin da barrurago sartu. Orain dokumentuei dagokien azterketa falta da egitea eta laster hasiko

dira prestatzen.

► Zer egingo da aurkikuntza honekin?

Museo Eskolako lantaldeak hondarearen babesa nahiko luke. Ez bakarrik babesa, baita erakusketa ere. Orain bost urte "Eskoriatza dena museo bat" proiektua jarri genuen martxan eta interesgarria den edozein gauza berriztu eta jendaurrean erakusten saiatzen gara, nahiz zubi bat izan, nahiz harraska izan. Azkenengo aurkitu diren errota eta burdinola ere gure herriko hondare kulturala dira, beraz, jendeak zer egon zen jakin dezan bertan egondako antzeko errota jartea gustatuko litzauguke.

**TOKI
ALAI
TABERNA**
karajiloetan
espezializatua!!
Tel.: 71 47 29

NAIRA
TABERNA
Aranburuzabala, 16
Tel.: 943 71 46 71

**RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."**

Denda:
Santa Ana, 17
Tfnoa-Faxa: 943 714165
Tailerra:
Santa Ana, 12
Tfnoa-Faxa: 943 714112

► Udalak zer dio honen inguruan?

Proiektua egin behar dela lehenengo eta gero erabakiko duela zer egin.

► Horrelako aurkikuntza geihago ager daitezkeela uste duzu?

Ez dakigu baina egia da hasi Gatzagatik eta Bergararaino hainbat eta hainbat burdinola egon zirela, nahiz eta gaur denak desagertuta egon. Eskoriatzako hau izango da hain ondo kontserbatuta mantentzen den bakarrenetakoa eta ez bakarrik herriarentzat bailara osoarentzat da interesgarria. Beraz mankomunitate mailan ere ahalegintxo bat egin beharko litzateke gorde eta mantentzeko, izan ere industria mailan oso garrantzitsuak izan dira gure herrian errotak eta burdinolak.


► Antzinako aurkikuntza ugari egin dira Eskoriatzan. Zergatik ote da?

Ez dakit ugari izan diren, baina hemen agertu, mantendu eta jarraitu egin dira aurkikuntzak. Ardura bat dagoelako ere badela uste dut, ez bakarrik Museoaren aldetik herri osoan dago herriko hondarearekiko ardura. Museoan dauden gauza asko herritarrek gorde eta ekarritakoak dira, beraz antzinakoek utzitako gauzekiko sensibilidade berezia dago.



XVII. mendeko aztarnak

Olazar auzoan aurkitu dituzten XVII. mendeko burdinola eta errotaren aztarnak direla eta, indusketa lanak egiten ibili dira Aranzadi zientzia elkartekoak. Hiru arkeologo ibili dira astebetez. Maiatzaren 23an amaitu zituzten indusketa lanok. Orain, dokumentuen gaineko azterketa egingo dute. Laister amaituko dute eta ondorioak Eskoriatzako udalari jakinaraziko dizkiote. Orduan erabakiko du udalak zer egin aztarna horiekin. Izan ere, Olazar auzoan eraberritze lanak egiten dihardute. Hain justu, aparkalekuak egitea zuen aurreikusita udalak arrastoak aurkitu dituzten leku horretan. Seguruen, baina, proiektua zerbait aldatu beharko dute arkuaren errespetatu eta kontserbatzea delako udalaren asmoa. Hori bai, Aranzadi zientzia elkartekoak aurkitutako emaitzen arabera erabakiko du udalak aztarnekin zer egin. Oraingoz, arkuaren eta burdinola, eta errotaren ura eroateko pasabidea estaltzea pentsatu dute. Berreskuratze lanak aurrerago egingo dituzte, horretarako zenbat diru behar den aztertu eta gero.



Debagoienean betidanik egon izan dira burdinolak eta baita errotak ere. Baina, Eskoriatzako burdinolaren arrastoak omen dira bailaran hobekien mantendu direnak urteetan. Hala ere, oso gutxi dira Olazarren burdinolarik eta errotarik egon zela gogoratzen dutenak.



Urtetik urtera, haziz



Baserritarren eta artisauen topaleku bihurtuko da Eskoriatza ekainaren 2an, baserriko produktuen eta artisauen feria dela-eta. Herriko ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko duela bost urte antolatu zen azoka lehenengo aldiz. Aurten, berriz, inoiz baino indartsuago datorkigu.

Hamabost postu inguruko azoka egin zen lehenengo urtean. Rosa Elizburu azokaren arduradunak dioskunez, "nahiko harrera ona izan zuen merkatuak, eta hurrengo urtean piska bat handiagoa egitera animatu ginen: hogeita hamasei bat postu jarri genituen. Orduz geroztik apurka-apurka haziz joan da Eskoriatzako feria, eta 3. urtean hegaztien eta abereen erakusketa jartzera ere animatu ginen. Aurten, berriz, laurogeita hamalau postu izango ditugu".

Kultura eta tradizioa

Euskal kultura eta tradizioa sustatzeko helburuarekin jaio zen Eskoriatzako feria, eta irmo segitzen du hasierako asmo horrekin. Dena dela,

nor arduratzen da antolakuntzaz? Urtero-urtero hamabost-hogeiko talde batek hartzen du beregain egin behar hori. Ikaslez, ikasle ohiez, gurasoz, amonez eta irakaslez osatutako taldea da. Otsailetik hona astero-astero elkartu dira taldekideak. Rosa Elizburuk adierazi bezala, aurten berandu hasi dira antolatzen. Jeneralean gabonen inguruan ekiten diote lanari. Azoka egunean, berriz, puztu egiten da beharra erabat, eta ondorioz lan taldea ere bai. Iaz 130 bat bolondres aritu ziren jo eta ke.

Antolakuntza

Horrelako feria bat ez da borondate onarekin soilik antolatzen; dirua ere behar da. Aurtengoa aurrera era-

mateko, adibidez, bi milioi pezetatik gora behar izan dira. Azokaren arduradun Rosa Elizburuk adierazi bezala "errifak eta taloak salduz, herriko tabernari eta enpresarioei eskatuz... lortzen dugu dirua. Ahal den toki guztietan eskatzen dugu. Bestalde, Udalak ere dexente laguntzen digu, bai diruz eta baita azpiegiturei dagokienez ere".

Euskal Herriko txoko guztietatik etorriko dira baserritar eta artisauak Eskoriatzara datorren zapatuan. Herriko gazta, kontserbak, ogia... ikusi, dastatu eta erosteko aukera ere izango da. Rosa Elizburuk jakinarazi digunez, "herriko baserritar eta artisauekin lehentasunez jokatu nahi izan dugu, eta ez diegu konpetentziarik jarri nahi izan.



Intxaurtxueta kalea, 8



Tel.: 943 58 50 58



- Oinetakoen konponketa eta produktuak
- Giltzen kopiak
- Opariak

Aranburuzabala, 6
ESKORIATZA

BENTAMOTZ TABERNA

- Egunerako menua 1000 pzta
- Goizeko 6etatik irekita

Gaztainadui, 21
Tel.: 71 48 22

Produkturen batean herriko ordezkariarik aurkitu ez dugunean, orduan kanpoko ordezkari eta baserriarrek bete digute hutsunea". Animaliei dagokienez, emuak, zaldiak, astoak, ardiak, ahuntzak... jarriko dira erakusgai. Horretaz gain, Bergararik hasky arrazako txakurrak etorriko dira, eta haurrek txakur leratan ibiltzeko aukera ere izango dute goizean. Hegaztiei dagokienez, berriz, hogeita bi mota ezberdin ekarriko dituzte Eskoriatzako Surun baserritik, eta Zumarragako ehiza-hegaztien erakusketarik ere ez da faltako.

Gaztetxoak ere partaide

Antolakuntza lanetan Jose Arana ikastola aritu den heinean, txikiak ezin izan dituzte ahaztu, eta protagonista ere bihurtuko dira neurri handi batean. Gaztetxoek ikastolan egindako artisaun lanak jendaurrean erakustez gain, salgai ere jarriko dituzte. Tailerrak ere izango dira gainera, eta baita puzgarriak ere. Txorimalo lehiaketak, berriz, laugarren aldia izango du aurten. Lau urtetik laurogeita hemeretzira bitarteko edonork hartu ahal izango du parte, eta edozein material erabili ahal izango da txorizugarriak egiteko.

EGITARAUA

- 9:00 Etxaflero jaurtiketa
 9:30 Txistularien kalejira
 10:30 Ferixie zabalduko da
- Baserriko produktuak
 - Artisautza
 - Hegazti erakusketa
 - Abere erakusketa
 - Baserriko tresneria
- 11:00-12:00 Haurrentzako txakur lerak
 11:00-14:00 Gaztelu puzgarriak
 11:30 Laugarren txorimalo lehiaketa
 12:30 Eskoriatzako bandaren emanaldia
 13:00 Txalapartariak eta ikurriña dantza
 13:30 Errifen zozketa eta sari banaketa plazan
 14:30 Herri bazkaria dantzaldiarekin frontoian

Aurtengo azoka berrikuntzez ongi jantzita etorriko zaigu gainera. Mendiolako Jose Mari Arkauz, adibidez, lehenengoz arituko da turroia egiten. Bestalde, azken urteotan Agustin Zugasti eskoriatzarrak ere parte hartu izan du azokan, egurra landuz. Aurten, omenaldi gisa, berak landutako egurrezko lanekin erakusketa jarriko da.

Sariak

Antolatzaileek posturik onenak ere saritu nahi izan dituzte. Hori dela

eta, herri bazkaria baino lehen hainbat sari banatuko dira. Hiru trofeo izango dira guztira: bertako produktuen eta artisauen postu onenari sari bana banatuko zaie, eta azokako postu orijinalenak ere eramango du saria.

Euskal giroaz gozatzeaz gain goiza ikusmiran pasatu nahi duzenok, badakizue. Zapatu honetan Eskoriatzan duzue aukera, urtetik urtera indartsuago bihurtzen ari den ferian.



LEIRE URZELAI INJENARI BATEN ABENTURAK SUITZAN


(Jarraipena)

Aurreko hilabetean argitaratutako erreportaia jarraituz, hilabete honetan ere Leirerekin izandako elkarrizketak emandakoari beste tarte bat eman diogu gure ale berri honetan. Luze jo zuen Aste Santuan Santutan berarekin izandako elkarrizketak, eta gauza askotxo utzi genituen airean. Gure artean gero eta gehiago dira beren ikasketak osatzeko atzerrira jotzen duten gazteak, eta Leirerena ejemplu ona dugu hauen bizimodura hurbiltzeko.



Dagoeneko badira ia hiru ikasurte Leirek Lausannara jo zuela, bukatuak ditu jada Informatikako Injenaritzari buruzko ikasketa gorenak, eta bukatua du baita egin beharreko proiektua ere, orain, beste salto bat eman eta Suitzako langile bizitzara aldatzea tokatu zaio. Eta salto honetan ere agerian gelditu zaizkio Suitzako hezkuntza sistemaren eta lanerako ohituren onurak ere. Aurrekoan esan genizuen bezala, ikasketak Lausannako Eskola Politekniko Publikoan egin ditu Leirek, baloratzen jarritz gero leku merke eta oso maila oneko eskola batean; eta lana aurkitzerako orduan, harreman zuzena izan du alorreko hainbat enprekin. Eskolak antolatutako jardunaldi batean, bere curriculum eskaini ahal izan zien etxe askori, eta alorrean dagoen beharra ikusita, berak lana bilatu beharrean lana bere bila etorri zela ere esan daiteke. Hilabete bada informatika aholkularitza enpresa batean lanean hasia dela, eta gauzak polito irteten ari zaizkiola

dirudi. Ez da oso zaila Alpeetan udaberriak zeinen polita izan behar duen imajinatzea, berak han duena hemen Kurtzeberri puntan egiten duen eguraldia dela esaten du Leirek hotzari buruz galdetuz gero, neguan sarri egiten omen du elurra ere, baina orain Lausanna inguruko tontorrek dira bakarrik elurrez zuri daudenak. Polita ezta?



Hirian bertan berriz, bere txokoa aurkitua du Leirek "Bossette"-n, jende nahasketa interesgarria omen duen taberna batean, bertako lagunak ere egin ditu, orain ez da joan zenean bezala; bere lagunek behin baino gehiagotan esan omen zioten ez zuela leku denetara sartzean jende ezagunaren bila ibili beharrik, han jende gutxi ezagutzen baita. Orduan konturatu zen hemen beti tabernaren batera sartzean ezagunen bila ibiltzeko dugun ohituraz. Hala ere, Suitzako bizitza garestiegia suertatzen da beti tabernaz-taberna ibiltzeko, eta ikasle bizitzako ohitura jarraituz, lagun eta ikasikideen etxeetan ospatzen dira hainbat jai. Orduan ikusten omen da kalean ikusten ez diren beste ohitura asko, marihuana erretzearena edo eta beste droga batzuk kontsumitzea, adibidez. Marihuanari dagokionean, Europako beste herrialde batzuen antzera, gero eta sakonagoa bihurtzen ari den ohiturak duen garrantziaren erakusle, hemen orain ikusten hasi diren "grow-shop" (marihua-

HARAKINA-URDAITEGIA



Tel.: 943 71 42 02
Santa Ana, 11
ESKORIATZA

IRRINTZI

TABERNA

Idalga, 5 Tel.: 71 46 83

HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

na landatzeko beharrezkoak diren hainbat gauza saltzen diren denda) ugari daude, era orain gutxi ere kontsumizioa legezatzearen aldeko hainbat ekimenek izan dute bere oihartzuna.

Drogei buruz hitz egiten jarritz gero, Suitzan bada jendearen eguneroko jokabidean erabiltzen duten edukazio, ia “protokoloaren” beste adibide bat: Lausanna horren hiri polit eta ondo zaindua izanda, ironia bat dirudi hiriko desintoxikazio eta drogen tratamendurako zentrua justu hiriaren erdi-erdian eta plaza nagusian egoteak, baina hala da. Kanean eskean ibiltzea debekatua dago, baina eskaleak ere edukazio finekoak dirudite; kanean jendeak txapelera zer bota zain egon beharrean, zuzenean jotzen dute jendearengana, eta eskerrak ematen dituzte ezer ematen ez badiezu ere. Beste alde batetik, Suitza izan da mundu osoan heroinazaleen desintoxikaziorako lanean metadona alde batera utzi eta zuzenean heroína erabiltzea hautatu zuen lehen nazioa. Soldadutza egiteko sistema ere berezia dute oso: Gaztetan hemengo soldadutzaren antzeko bat pasatu eta



gero, 45 urte bitartean eta bi urtean behin, gutxi gora behera, bi asteko egonaldi bat egin beharra dute suitzarrek armadan. Gainera, urte horietan zehar, etxean arma bat izateko aukera dute suitzarrek, eta hala ere, etxe askotan pistola bat dagoela kontutan izanda, oso istilu gutxi suertatzen da tiroak tarteko direla. Soldadutza bera egiteko modurik ez duenak ere, zerga berezi bat ordainduz konpondu dezake arazoa; “abantaila” guzti hauek suitzarren kontzientzia antimilitaristak duen indar txikiaren islada dira.

Bada suitzarrengan nahiko berezia den eta Leirek igerri izan duen beste kontu bat ere; hizkuntzenganak duten interesa: **“Kuriositatea**



erakusten dute euskara dela eta” esan digu Leirek **“Euskal Herriko egoeraren berri jakin nahi dute, galdetu egiten dute, baina bereziki hizkuntza da gehien erakartzen dituen”**. Estima gehiago izango al diote kanpoan guk gure etxean erasotua ikusten diogunari, ala?



Ferixan parte hartuko duzu? Zer da gehien gustatzen zaizuna?



Lorea Diaz de Gereñu
(langilea)

Bai, urtero parte hartzen dut eta normalean taloak egiten ibiltzen naiz. Postuak eurak gustatzen zaizkit eta hauez gain, bazkaria eta egunean zehar sortzen den giroa.



Dorleta Lezeta
(etxekoandrea)

Bai parte hartuko dut. Gehien gustatzen zaidana bertako postuak ikustea da, baita bertan sortzen den giroa ere.



Nina Oiarbide
(etxekoandrea)

Bai, azkenengo bost urteotan urtero parte hartu dut. Antolaketa orokorrean dut gogoko baina batez ere postuak nola kokatzen dituzten.




Teresa Reyes
(etxekoandrea)

Bai parte hartuko dut. Ferixan egoten den guztia dut gogoko.



Itziar Oiarzabal
(ikaslea)

Bai, parte hartuko dut. Puzgarriak, txorimaloak eta taloak gustatzen zaizkit.



Jesus Mª Badillo
(langilea)

Ez, ez noa parte hartzera. Gaztaiak dira gehien gustatzen zaidana.

Pub ALDATZ


Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

Argitalarpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación



GAIA

Elekziñotan irabazi? ala galdu?

Maiatzaren 13an Fatimako Amabirjinaren eguna ospatzen da urtero-urtero. Antza denez aipatu emakumeak, aurten, bere eguna ospatzea erabaki eta demaseko milagroa egin du. Hala uste izan nuen hilaren 14an behintzat. Nire inguruan nituen guztien aurpegiak irribarre inozoak, zorion totalaren marka erregistratua omen, horixe adierazten zuen. Politikarien esanei erreparatu nionean ondorio bera ateratu nuen. Milagroa. Zein zen osterako milagroa, irabaztea? Ez, irabaztea ez, DENOK irabaztea izan zen milagroa.

Hiru aste pasa ondoren ez dut galtzaileraren arrastorik ikusten. Eta kezkatzekoa da. Ez dut politika mundua ganoraz ezagutzen eta ez dakit hori normala den, baina ezagutzen ditudan arlo guztietan inork ez du ezertxo ere irabazten beste batek galtzen ez ba du. Eta, hau bai, hau egi borobila da. Zientzia-letra-humanitateetan. Beraz bada, ez dakit non edo zertan baina aldrebesamartuta gabiltza. Politikariak beste arraza batekoak izaki, oinezan/oinazeen gabiltzan hiritarrok behintzat bai. Eta litekeena da kasu honetan gure nahastea momentuzko poztasunaren abiapuntuan bertan izatea, hots hauteskundeetan. Nonbait ahaztua dugu hauteskundeak tresna –nire ordenadorean “tools”- besterik ez direla eta helburutzat jotzen ditugu. Honela, emaitzak argitaratu orduko, interpretazio egoki batek munduko errege bihurtzen gaitu. Denok irabazle. Eta point.

Eta bakarren batek, beti dago eta bakarra izan nahi duen xelebreren bat, bere burua galtzailatzat aurkeztu nahiko balu, izango du, bai, Savaterren bat arrazoa emanez arrazoa kenduko diona. Hauteskundeetan emaitzak populazioaren nahia besterik erakusten ez baitute eta, jakina, Arrazoa beti nahiaren gainez baitago. Savater dixit. Ez dago ez Filosofia bezalakorik zoriotsua izateko. Arazo bakarra arrazoa beti filosofoarena izaten dela eta nahiak besteenak. Pozik egon gaitezke erreflexioa emaitzen ondoren egin duenean, hurrengorako argumentua hauxe izan daiteke eta: Zertarako hauteskundeak, arrazoa badaukat? (Portzierto, Savater eta pistoladunak filosofia eskola berekoak ote?)

Oro bat, guztiek irabazten ei dute hauteskundeetan, eta nire ondokoak be halaxe uste du. Izan be, nola justifika lezake, bestela, bereek izandako zartatekoa ez dela galera izan? Bada, oso errez, guztiek irabazi dutela esanaz!

Ez da, ba, hori nire iritzia, eta honen inguruan nabilela, gogora datorrit karreristen tropela. Nola egon daiteke pozez zortzeko moduan, karreretan sarri gertatzen den bezala beste ekipo batekin kontxabatuta irabazi duena, are gehiago, atzetik zetorren ekipoari segundo bakarreko bentaja ateradionean? Ez daki ekipo horren zuzendariak minutuetako abantaila behar dela patxadaz ibiltzeko ala? Eta zer esan aliantza estrategiko horren beste ekipoak irabazteko gertzen zitzaizkion taldekide apurrak lanean jarri dituenari buruz? Zer aterako du, bera irabazteko egokieran denean ustez jaso ko duen laguntza? Noiz egongo ete da, baino, irabazteko-tan?

Eta segundo bakarrera sartu den ekipoa, kontuan izanda bera be elkar hartuta zegoela eskasago dabilen eta irabazteko gutxi zeukan beste talde batekin, eta hala be bigarren baino ez dela geratu, nola dago horren pozik eta lerdia dariola aurreko karreretan baino azkarrago ibili dela esanez, kontua lehenengo iristean datzanean? Nola ibil daiteke, hara eta hona, hoberenak direla, *aupa guka*, eta okerrago oraindik, aurkariak kristorenak eta bi botaaaz, azken finean beste morroi batzuk atzetik bultzaka ibilita be bigarren baino ez denean geratu? Horretarako hainbeste buila eta zalaparta? Eta zer esan besteei buruz... Eurek ei zuten liderraren elastikoa eramateko gorputzik lerdenean, eta ia gorpu geratu dira lasterketaren amaierarako, bere taldeburuari barik beste batenari bultzaka ibili eta gero. Oso abilak, bai horixe!

Eta herriaren esentziak, alfak eta omegak biltzen dituen ekipoa, e? Non dira horien puntxa, amaiera indartsua, sprint potentea? Lasterketaren giltzarria ei ziren, eta tarteko helmugen sailkapenerako baino ez dira gelditu, eta hori ere justu-justuan.

Eta zer esan metara *autobusean* iritsi den taldeari buruz, kontrola ixtear zegoela? Beste inor baino alaiago ei dabil-tza. Zergatik, eta aurrekoetan are atzerago iritsi zirelako. Utikan!

Irabazi? Nik neuk guztiek galdu dutela egingo nuke, ba.

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokitzuz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

Esaldi lehiaketa

San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa antolatu du Eskoriatzako udalak. 14 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek har dezake parte, baina hiru eta bost pertsona bitarteko taldeak sortuz. Talde bakoitzak gutxienez esaldi bat aurkeztu beharko du, eta gehienez gura beste. Esaldiak udaltxean eta EGASeko lokaletan jarri diren buzoietan, kartazal batean sartuta, aurkeztu beharko dira, datorren eguaztena, ekainak 6, baino lehen. Kartazalean taldearen izena ipini beharko da eta barruan, beste kartazal itxi batean Datuen Txartela sartu.

Esaldi lehiaketa irabazten duen taldeari San Pedro jaietan afari bat ordainduko zaio Eskoriatzako jate-

txe batean. San Pedro jaietarako, gainera, kartel bat jarriko da plazan irabazi duen esaldiarekin eta beste esaldi batzuekin pegatinak aterako dira. Epaimahaia udaleko euskara batzordea izango da.

“Jaietan euskaraz ligatzeko, solasean aritzeko eta sentimenduak plazaratzeko aukera badugula adierazteko, euskarari atek zabaltzeko, gazteak eta euskara guztiz konpatibleak direlako, jaietan euskarak lehentasuna merezi duelako... eta beste hainbat arrazoiengatik” antolatu dute lehiaketa. Beraz, animo, bota zure esaldia eguaztena baino lehen.

Luis Ezeiza eskolaren jaia

Luis Ezeiza ikastetxeak ikasturte amaierako jaia ospatuko du ekainaren 9an, zapatua. Goizeko 10:30etan emango zaio hasiera jai egunari trikitixarekin eta etxaflero jaurtikitarekin. Ondoren, 11:00etan, umeen emanaldia izango da. 12:45etan opariak banatuko dira eta 13:30etan haurrentzako bazkaria izango da. 14:15etan mimoa izango da haurrentzako eta, jarraian, nagusientzako bazkaria. Bazkalostean, Txatxilipurdikoe hainbat jolas antolatuko dituzte haurrentzat. 17:00etan, berriz ere mimoa izango da haur eta nagusientzat eta 18:30etan, puzgarriekin jolasteko aukera izango dute txikienek. Amnaitzeko, 19:00ak inguruan, globo aerostatikoa aireratuko da. Luis Ezeizaren jaia gurasoek antolatzen dute.

Intxaurtxuetako jaiak

San Pedro jaietako egitaraua ia presta dauka udalak, baina horren berri izango duzue aldizkari honetako hurrengo zenbakian. Oraingotan aurreratuko dizueguna, Intxaurtxuetako jaietako egitaraua da.

Oharra: karta jokoetarako izena ematea 2.000 pezetakoa izango da eta sariak honako hauek: hiru lehenengoentzako garaikurrak izango dira eta baita diru kopuru bat ere. Izena ematean jasotakoaren %40 eroango du irabazleak, %20 bigarrenak eta %10 hirugarrenak.

Ekainak 15, egubakoitza

- 18:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 18:30: Buruhandiak.
- 19:00: Briska lehiaketa Lagunak kafetegian.
- 22:00: Herri saihotskada. Interesatuok, San Pedro eta Intxaurtxuetako edozein tabernatan bonoak salgai 1.500 pezetatan.
- 23:30: Berbena handia, Maitana taldearekin.
- 04:00: Dj-en emanaldia kiroldegi aurreko plazan. (Aurten ere karpa jarriko da plazan).

Ekainak 16, zapatua

- 10:00: Diana zuziri eta guzti.
- 10:15: haurrentzako jolasak eta giza partxisa.
- 12:30: Herri txikiteoa.
- 16:00: Tute lehiaketa Compostela tabernan.

- 17:00: Txiki IV. Areto futbol eta saskibalo txapelketa kiroldegian.
- 23:30: Berbena handia Maitana taldearekin.
- 04:00: Bigarren Dj-en emanaldia.

Ekainak 17, domeka

- 10:30: Diana zuziri eta guzti.
- 11:30: Arratsaldeko ordubiak bitartean haurren parkea (gaztelu puzgarriak, karrak, tren txu-txua...).
- 12:30: Tortila lehiaketa handia.
- 13:00: Herri txikiteoa.
- 15:00: Arratsaldeko lau eta erdiak bitartean, parkearen jarraipena.
- 16:00: Mus txapelketa Ilargi tabernan.
- 18:30: Bi auzoetako 65 urtetik gorako jubilatuentzat luncha Compostela tabernan.
- 21:00: Jai bukaerako traka.

TELEFONOAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Ezeiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

Orain 50 urteko argazkia

Eskoriatzako Musika Banda



Goian, eskerretik eskubira, Bernardo Leceta, Pedro Zabaleta, Antonio Madinabeitia, Eugenio Beloqui, Juan M^a Echabe, Felix Barandiaran, Nicolas Zubizarreta, Jose Encotegui, Mateo Landa, Goio Landa.

Behean, Felipe Diaz de Guereñu, Carmelo Legazpia, Edorta Alegria, Jorge Eraña, Cipriano Urrutia, Lucio Marcaide, directorea, Anton Iregui, Anton Beloqui, eta Juan M^a Armendariz.

Argazki emailea, Felix Barandiaran.



EKAINA

ARIMA BELTZA

Ekainak 1, ostirala
Aldatz tabernan
gaueko 22:30ean

... baina ez dira hemen bukatuko gure urteurreneko ospakizunak. Jakinaren gainean izango zaituztegu.



MIRVAT

MIRVAT S. Coop. Ltda.

Aingeru ibiltokia, 41
20540 ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 45 06
Faxa: 943 71 50 05